

# Aurkezpena

**Sekuentzia honetan jarduera hauek egin ditzakezu:**

- Audioa entzun eta galderei erantzun.
- Audioa entzun eta transkripzioa osatu.
- Esaldi batzuetan txertatu gaiarekin lotutako lexikoa.
- Zezenketen aldeko edo aurkako rola defendatu eztabaida batean.



## Egia ala gezurra?



Entzun audioa eta esan ondorengo esaldiak bat datozen ala ez entzundakoarekin.

	Egia	Gezurra
Inkesta Euskal Herriko hiriburuetan egin dute irratikoek.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Kalean elkarrizketatu dituztenen artetik, emakumeak bakarrik esaten du garbi zezenketen kontra dagoela.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Jon Anderren ustez, krisia dela-eta gero eta jende gutxiago joaten da zezenketak ikustera.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Lide Trekuren ustez, ez da egia zezenketak errentagarriak direnik.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

# Transkripzioa osatzen

Hemen duzu aurreko audioa (laburtuta) transkripzioarekin; baina transkripzioa ez dago osorik. Entzun audioa eta osatu falta dena.

ESATARIA. Hortxe dago notizia, berriz ere zezenketak izango direla Donostian. Kalera atera gara, Ainhoa Etxebarria gure lankidea kalera atera da, eta donostiarrei galdetu die ea zer iritzi duten \_\_\_\_\_ . Entzun.

AINHOA ETXEBARRIA. Kaixo. Ba berriro ere zezenketak ikusiko ditugu Ilunben. Zer uste duzu horren inguruan?

EMAKUMEA . Nahiko gaizki iruditzen zait. Entzun dut irratian eta telebistan horren inguruan eta iruditzen zait bidegabekeria hutsa dela ba zezenei hori egitea. Azken finean, \_\_\_\_\_ , eta jendeak ba ondo pasatzen du beraiei sufritzen ikusten.

MUTILA. Egia esan . Ez dakit ba betidanik egon den zerbait izan da, aspaldi Donostian, Groseko zera Txofre plazan, ba zezenketak egoten ziren bere garaian, eta jartzen baldin badira ba bueno, ba bere publikoa badaukate; asike, bueno, gutxienez beraiek disfrutatuko dute pixka bat.

GIZONA. Ba ez zait gustatzen niri: urte batean kendu eta bestean jarri, \_\_\_\_\_ . Gauzak hori baino serioago hartu behar dira.

Hori politika interesa da dena. Ez, hori herriari eskatu zaiola, jendearen opinioa eta gehiena, gehiengoa, ateratzen bada ezezkoa, ezezkoa; eta gehiengoa baiezkoa ateratzen bada, pues baiezkoa eta listo.

ESATARIA. Zezenketak berriz ere Donostian. Zezenketak: aldekoak eta kontrakoak eragiten dituen gaia. Telefonoz beste alde, Jon Ander Sanz, Zezenketen Aldeko Plataformako presidentea. Jon Ander, egun on.

JON ANDER. Bai, egun on.

ESATARIA. Bueno, pozik egongo zara, ezta, Jon Ander?, berriz ere zezenketak dituzuelako.

JON ANDER. Ba bai, egia esan bai. Azkenean, normaltasuna bueltatzen da eta Euskal Herriko hiriburu guztietan \_\_\_\_\_ .

ESATARIA. Ja, baina, ikusi duzu, kalean jendeak ez dauka oso aldeko jarrera.

JON ANDER. Bueno, guk hori errespetatzen dugu. Guk eskatzen duguna da gure, gure afizioa eta gure zaletasuna besteek errespetatzea; eta ikusten dugu azkeneko bolada honetan ba ez gaituztela errespetatzen.

Guk beraiek errespetatzen ditugu, ez dugu inor behartzen zezenetara joaten, baina beraiek badirudi ez dutela, \_\_\_\_\_

## Zezenen inguruko hiztegia

[Hemen dituzu audioan entzun dituzun zenbait esaldi. Aukeratu esaldi bakoitzean falta den hitza.](#)

Berriz ere \_\_\_\_\_ k ikusiko ditugu Ilunben.

Iruditzen zait bidegabekeria hutsa dela \_\_\_\_\_ ei hori egitea.

Guk eskatzen duguna da gure afizioa eta gure \_\_\_\_\_ a besteek errespetatzea.

Lehen, estatu espainiarrean \_\_\_\_\_ k lehen beteago egoten ziren.

Jendea dago oso haserre, ez du ulertzen nola den posible \_\_\_\_\_ bat ematea.

Animalien \_\_\_\_\_ aren kontura den dibertsio bat.

GIZONA. Ba ez zait gustatzen niri: urte batean kendu eta bestean jarri, \_\_\_\_\_ . Gauzak hori baino serioago hartu behar dira.

Hori politika interesa da dena. Ez, hori herriari eskatu zaiola, jendearen opinioa eta gehiena, gehiengoa, ateratzen bada ezezkoa, ezezkoa; eta gehiengoa baiezkoa ateratzen bada, pues baiezkoa eta listo.

ESATARIA. Zezenketak berriz ere Donostian. Zezenketak: aldekoak eta kontrakoak eragiten dituen gaia. Telefonoz beste alde, Jon Ander Sanz, Zezenketen Aldeko Plataformako presidentea. Jon Ander, egun on.

JON ANDER. Bai, egun on.

ESATARIA. Bueno, pozik egongo zara, ezta, Jon Ander?, berriz ere zezenketak dituzuelako.

JON ANDER. Ba bai, egia esan bai. Azkenean, normaltasuna bueltatzen da eta Euskal Herriko hiriburu guztietan \_\_\_\_\_ .

ESATARIA. Ja, baina, ikusi duzu, kalean jendeak ez dauka oso aldeko jarrera.

JON ANDER. Bueno, guk hori errespetatzen dugu. Guk eskatzen duguna da gure, gure afizioa eta gure zaletasuna besteek errespetatzea; eta ikusten dugu azkeneko bolada honetan ba ez gaituztela errespetatzen.

Guk beraiek errespetatzen ditugu, ez dugu inor behartzen zezenetara joaten, baina beraiek badirudi ez dutela, \_\_\_\_\_

## Zezenketen alde ala kontra?

Audioan ikusi duzunez, jende bat zezenketen alde dago eta bestea aurka. Rol-joko bat egingo dugu gai honen inguruan; alegia, bakoitzak egokitzen zaizuen rola edo ikuspuntua defendatu behar duzue eta eztabaidatu aurkako ikuspuntua dutenekin.

Pentsatu lehendabizi -zeuk bakarrik edo talde txikian- eta idatzi zure ikuspuntua defendatzeko arrazoiak. Ondoren, elkartu kontrako ikuspuntua dutenekin eta ekin eztabaidari.

**Erabili nahi badituzu, hemen dituzu zezenketen alde edo aurka eman ohi diren arrazoi batzuk:**

### **Zezenketen alde:**

Guk eskatzen duguna da gure zaletasuna errespetatzea.  
Egia esan ez nago ez aurka eta ez alde.  
Betidanik egon den zerbait da.  
Bere publikoa badaukate; beraiek disfrutatuko dute pixka bat.  
Ezinbestekoak dira gure festetan.

### **Zezenketen aurka:**

Iruditzen zait bidegabekeria hutsa dela ba zezenei hori egitea.  
Nahiko gaizki iruditzen zait; atzerapauso bat da.  
Gipuzkoar gehienak kontra daude.  
Animalien sufrimenduaren kontura den dibertsio bat da zezenketa.  
Zezenketa ez da artea, zezenen kontrako tortura baizik.

## Egia ala gezurra?

	Egia	Gezurra
Inkesta Euskal Herriko hiriburuetan egin dute irratikoek.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Kalean elkarrizketatu dituztenen artetik, emakumeak bakarrik esaten du garbi zezenketen kontra dagoela.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Jon Anderren ustez, krisia dela-eta gero eta jende gutxiago joaten da zezenketak ikustera.	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
Lide Trekuren ustez, ez da egia zezenketak errentagarriak direnik.	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

## Transkripzioa osatzen

AINHOA ETXEBARRIA. Kaixo. Ba berriro ere zezenketak ikusiko ditugu Ilunben. Zer uste duzu

EMAKUMEA . Nahiko gaizki iruditzen zait. Entzun dut irratian eta telebistan horren inguruan eta

MUTILA. Egia esan (ez nago ez aurka eta ez alde). Ez dakit ba betidanik egon den zerbait izan da, aspaldi Donostian, Groseko zera Txofre plazan, ba zezenketak egoten ziren bere garaian, eta jartzen baldin badira ba bueno, ba bere publikoa badaukate; asike, bueno, gutxienez beraiek disfrutatuko dute pixka bat.

GIZONA. Ba ez zait gustatzen niri: urte batean kendu eta bestean jarri, (ez zait batere gustatzen). Gauzak hori baino serioago hartu behar dira. Hori politika interesa da dena. Ez, hori herriari eskatu zaiola, jendearen opinioa eta gehiena, gehiengoa, ateratzen bada ezezkoa, ezezkoa; eta gehiengoa baiezkoa ateratzen bada, pues baiezkoa eta listo.

ESATARIA. Zezenketak berriz ere Donostian. Zezenketak: aldekoak eta kontrakoak eragiten dituen gaia. Telefonoz beste alde, Jon Ander Sanz, Zezenketen Aldeko Plataformako presidentea. Jon Ander, egun on.

JON ANDER. Bai, egun on.

ESATARIA. Bueno, pozik egongo zara, ezta, Jon Ander?, berriz ere zezenketak dituzuelako.

JON ANDER. Ba bai, egia esan bai. Azkenean, normaltasuna bueltatzen da eta Euskal Herriko hiriburu guztietan (zezenak egongo direlako aurten).

ESATARIA. Ja, baina, ikusi duzu, kalean jendeak ez dauka oso aldeko jarrera.

JON ANDER. Bueno, guk hori errespetatzen dugu. Guk eskatzen duguna da gure, gure afizioa eta gure zaletasuna besteek errespetatzea; eta ikusten dugu azkeneko bolada honetan ba ez gaituztela errespetatzen. Guk beraiek errespetatzen ditugu, ez dugu inor behartzen zezenetara joaten, baina beraiek badirudi ez dutela, (ez gaituztela errespetatzen).

# Zezenen inguruko hiztegia

Berriro ere (zezenketa)k ikusiko ditugu Ilunben.

Iruditzen zait bidegabekeria hutsa dela (zezen)ei hori egitea.

Guk eskatzen duguna da gure afizioa eta gure (zaletasun)a besteek errespetatzea.

Lehen, estatu espainiarrean (zezen-plaza)k lehen beteago egoten ziren.

Jendea dago oso haserre, ez du ulertzen nola den posible (atzerapauso) bat ematea.

Animalien (sufrimendu)aren kontura den dibertsio bat.

## Transkripzioa

ESATARIA. Hortxe dago notizia, berriz ere zezenketak izango direla Donostian. Kalera atera gara, Ainhoa Etxebarria gure lankidea kalera atera da, eta donostiarrei galdetu die ea zer iritzi duten Donostian berriz ere zezenketak izango direlako. Entzun.

AINHOA ETXEBARRIA. Kaixo. Ba berriro ere zezenketak ikusiko ditugu Ilunben. Zer uste duzu horren inguruan? EMAKUMEA. Nahiko gaizki iruditzen zait. Entzun dut irratian eta telebistan horren inguruan eta iruditzen zait bidegabekeria hutsa dela ba zezenei hori egitea. Azken finean, beraiek ez daukatelako kulparik, eta jendeak ba ondo pasatzen du beraiei sufritzen ikusten.

MUTILA. Egia esan ez nago ez aurka eta ez alde. Ez dakit ba betidanik egon den zerbait izan da, aspaldi Donostian, Groseko zera Txofre plazan, ba zezenketak egoten ziren bere garaian, eta jartzen baldin badira ba bueno, ba bere publikoa badaukate; asike, bueno, gutxienez beraiek disfrutatuko dute pixka bat.

GIZONA. Ba ez zait gustatzen niri. Urte batean kendu eta bestean jarri, ez zait batere gustatzen. Gauzak hori baino serioago hartu behar dira. Hori politika interesa da dena. Ez, hori herriari eskatu zaiola, jendearen opinioa eta gehiena, gehiengoa, ateratzen bada ezezkoa, ezezkoa; eta gehiengoa baiezkoa ateratzen bada, pues baiezkoa eta listo.

ESATARIA. Zezenketak berriz ere Donostian. Zezenketak: aldekoak eta kontrakoak eragiten dituen gaia. Telefonoz beste alde, Jon Ander Sanz, Zezenketen Aldeko Plataformako presidentea. Jon Ander, egun on.

JON ANDER. Bai, egun on.

ESATARIA. Bueno, pozik egongo zara, ezta, Jon Ander?, berriz ere zezenketak dituzuelako.

JON ANDER. Ba bai, egia esan bai. Azkenean, normaltasuna bueltatzen da eta Euskal Herriko hiriburu guztietan zezenak egongo direlako aurten.

ESATARIA. Ja, baina, ikusi duzu, kalean jendeak ez dauka oso aldeko jarrera.

JON ANDER. Bueno, guk hori errespetatzen dugu. Guk eskatzen duguna da gure, gure afizioa eta gure zaletasuna besteek errespetatzea; eta ikusten dugu azkeneko bolada honetan ba ez gaituztela errespetatzen. Guk beraiek errespetatzen ditugu, ez dugu inor behartzen zezenetara joaten, baina beraiek badirudi ez dutela, ez gaituztela errespetatzen.

ESATARIA. Nola nahi ere, ari gara pixka bat sumatzen publikoaren jaitziera, ezta? Estatu espainiarrean zezen-plazak lehen beteago egoten ziren.

JON ANDER. Bueno, kontutan eduki behar da krisialdi batean gaudela eta, bueno, normala da jendeak ez badauka jateko ba normala da ba zezenketara ez joatea. Baina, bueno, orain arte urtarriletik ekainera Espainia guztian miloi bat eta seihun mila pertsona joan dira zezenketara. Eta beste urteetatik igo da; oseake, ikusten da berriz goraka d(ih)oala.

ESATARIA. Bueno, esan dugu, zezenketak aldekoak eta kontrakoak. Eta bai aldekoak, bai kontrakoak elkartetan antolatuta daude; elkarte horien iritzia ari gara ezagutzen. Lide Treku, Askekintza taldekoa da.

LIDE. Jendea oso, oso haserretuta dago, oso. Guk jaso ditugu e-mail pila bat Facebook-en komentario pila bat; jendea dago oso haserretuta, ez du ulertzen nola den posible atzerapauso bat ematea. Azkenean, ba, ez dakit ze portzentajea izango den baina hiritarren % bost, hamar...; horiek kontentatzeko egiten den gauza bat dela. Eta inoiz ez da izango justifikazio bat beti egin den zerbait dela... Bueno, erabili diren betiko argumentuak, ez: negozioa dela... gezurra denean, 21 milioi euro erabili direnean zezen plaza hori sostengatzeko. Bueno, argumentu asko erabiltzen dira behin eta berriro eta ematen du errepikatzeagatik egiagoak direla, baina ez da horrela.

ESATARIA. Jon Anderrek esaten zuen –Jon Ander esan dugu zezenketen aldekoa dela–, berak esaten zuen Euskal Herriko hiriburu guztietan badira zezenketak, Donostian zergatik ez?

LIDE. Zergatik ez? Bueno ba beste gauzen artean, eta hori ez da ahaztu behar, gipuzkoarren % 72, 90eko hamarkadaren bukaeran ari naiz, garai horretan % 72 zezenketen kontra zegoen. Herritarrek daude kokotaraino. Ba hori, negozioa egin nahi duten lau pertsona horienagatik aurrera eramatea animalien sufrimenduaren kontura den dibertsio bat.000